

# B euskararen BERRIPAPERA

## Euskararen leihoak ere zabal-zabalik

Otsailaren 22az geroztik, euskaldunok euskaraz lan egiteko baliabide gehiago izango ditugu. Ordenadorearekiko harremanak euskara hutsez burutzeko aukera izatea ez da jadanik ametsa eta erabiltzailea aurki ohartuko da horren garrantziaz. Edonork erabiltzeko modukoa baita Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren ekimenez Donostian otsailaren 22an aurkeztu den euskarazko Microsoft-Windows 95 ordenadore-sistema eragilea. Egindako lana hainbat lantaldere arteko lankidetzaren eredu garriari zor zaio, neurri handi batean. Izan ere, erakunde desberdinetako lankideak batera aritu dira hau bezalako egitasmo handi batek dituen zailtasun teknikoak bideratzen edota hizkuntz irizpideak finkatzen. Hizkuntza Politikarako Sailorde-

tzak adar guztiak koordinatu ditu, EJE, Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkartearen laguntzaz. Euskaraz jartzeko, UZEI eta Elhuyar Kultur Elkartearen zerbitzuak kontratatu ziren. Lan eskergaren fruitua kalean da zeuk erabiltzeko moduan, irakurle. Esan beharrik ez badago ere, Microsoft enpresaren Windows 95 sistema eragilea mundu osoan gehien erabiltzen dena da. Erabiltzaile kopururik ezin eman daiteke, baina mundu osoan baliabideak eta 32 hizkuntzetara itzulita dagoela esateak sistemaren garrantzia adierazten du. Hilabete gutxitako tartean kaleratu ziren egokitzapen guztiak, baita euskarazkoa ere. Otsailaz geroztik bada, gainerako hizkuntzen maila berean dago euskara.

Teknologia berrien iraultzan gaudelarik, euskaldunok euskaldunago bizi gaitzake jadanik. Microsoft-Windows 95 sistema eragileaz gain, munduan zabalduena den Word 6.0 testu-prozesadorea ere euskaraz baliabideak izazko uztailaz geroztik. Horrek guztiak esan nahi du informatikaren aurrean euskaldunok gainerako hiztunen maila berean gaudela. Bestela esanda, normalizazioaren bidean urratsez urrats, aurrera ari garela adierazten du. Eta orain irakurle, zure iritzia falta da. Ordenadorearen aurrean ematen dituzun orduetan ere, euskaraz lan egiteko aukera eskaintzen zaizu, jatorrizko hitzak eta esamoldeak aurkituko dituzularik. Nahi izanez gero, beraz, hemendik aurrera hizkuntza zehatz eta ulerterrazaz mintzatuko zaizu Microsoft-



*Microsoft-Windows 95 sistema eragilea jadanik euskaraz baliabideak daitezke. Erabiltzaileari lana erraztea eta euskararen normalizazioaren aurrera egitea egitasmoaren helburu nagusiak dira.*

SUMARIOA

- 1 Euskararen leihoak ere zabal-zabalik
- 2 Laburrak  
Aita Santi Onaindia  
Kontuan hartzeko
- 3 Euskara Expolangues-en Deialdiak  
Akitania-Euskadi-Nafarroa: lankidetzaren bidea jorratzen
- 4 Izen-abizenez  
Lehen begiratuan  
Iritzia

-Windows 95 sistemaren euskarazko bertsioa. Hain erraza izanik, aukera ihes egiten utziko al duzu? Eska ezazu bada; gainerakoan salneurri berean, euskaraz hitz egingo dizun sistema eragilea Microsoft informatika dendetan aurkituko duzu. Inongo arazorik bazenu, ondoko telefonoan behar dituzun argibideak emango dizkizute: (945) 188115. Eta zabal itzazu leihoak euskara ere sar dadin.

## LABURR

**L**ehen euskal liburua Bordelen agertu zenetik 450 urte bete berri dira eta, "usatu gabe zegoen lengoia" kultur hizkuntza bihurtu zuen idazlea eta lanak zaharbertzako ahalegina egin da. Horren fruitua da *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren argitalpen berria eta osatua. Xabier Kintanak koordinaturik, Euskaltzaindiak argitaratu berri du Beñat Etxepareren estraineko lana, sei hizkuntzatan emana oraingoan. Aipatzekoak dira besteak beste, Patxi Altunak egin duen gaztelaniarako egokitzapena eta Rene Lafonek frantsesera eginikoa. Edizio faksimila eta sei hizkuntzatan egindako itzulpena CD-ROM batean gordeko dira eta liburuak lortu duen oihartzuna ikusirik, Euskaltzaindiak aurki bigarren edizioa kaleratu beharko dela iragarri du.

**J**adanik Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako ordezkariarik dago UEMAn: Udallerri


Euskaldunen Mankomunitateko azken kidea Arabako Aramaio herria da.

Aramaioi 1.350 biztanle ditu eta guztira %95 euskaldunak dira.

Nolanahi ere, adierazi dute euskararen erabilera %60 ingurukoa dela eta txikiagoa 25 urtetik gorakoen artean. Alor horretan egin beharko dira, beraz, ahalegin nagusiak. Sozialki euskaraz bizi ahal izateak bultzatu omen du Aramaioko Udala UEMAn sartzera eta helburu horixe indartu nahian, UEMAn eguna maiatzaren Sean izango da Aramaion. Bejondeiela!



## AITA SANTI ONAINDIA

Euskalzale  
nekaezina  
hil da

**L**aurogeita sei urte zituela hil da Santi Onaindia, Aita Santi askorentzat. Amoroton jaio zen 1909. urtean.

Hamabi urte zituela joan zen Zornotzako karmeldarren Larreako komentura. Bertan egin zuen bere habia eta berrogeita hamar urtez bertatik aritu da etengabe euskalgintzan.

Aita Santiren lana lerro gutxitan laburtzea zaila da benetan. Gerra zibila baino lehen hasi zen olerkiak idazten. Gerrako frentean ere -gudarien kaperau izan baitzen-, ez zion idazteari utzi. Gero etorri ziren urte latzetan ere ez zuen etsi eta kartzela eta desterrua ezagutu arren, etengabe lanean jarraitu zuen.

Orduko ahaleginak izango dira, agian, bereziki azpimarratzea merezi dutenak.

*Milla euskal olerki eder* (1954) euskal olerkien antologia, esate baterako. Antologiarik osatuenetakoa izateaz gain, badu bestelako meriturik, ito beharrezko esperantzarako leihoak zabaldu zizkioten lanetako bat baita.

*Karmel* (1956) *Olerki* (1959) eta *Aurrera* (1968) aldizkariak sortzaile eta sustatzaile izan zen. Aldizkari hauetan bere lan asko

argitaratu ziren. Baina aipatzekoa da, bereziki, aldizkari horietan antolatutako olerki lehiaketen bidez olerkari gazteei bideak irekitzeko egindako saioak. Bere lanaren beste alderdi bat itzulpenena dugu: Goethe, Dante eta Virgilioren lanak euskaratu zituen. Bertsolaritza izan zen landu zuen beste arloa. Berea da beste lan askoren artean *Gure bertsolariak* (1964) bertso-antologia. Ohorezko euskaltzaina zen eta 1990ean Euskal Letren Saria jaso zuen.

## KONTUAN HARTZEKO

**Nafarroako Bertsolari Txapelketa**

Nafarroako bertsolariek eta bertsozaleek ez dute huts egingo urteroko zitan. Baigorriin hasi eta Atarrabian, Altsasuan eta Beran izan eta gero, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala Goizuetan jokatu da aurtun, martxoaren 24an. Iaz Estitxu Arozenak jantzi zuen *Txapela* dago jokoan, baina horren gainetik ere bertsozaleek eta bertsolariek biziki eskertzen duten aukera.

**Euskal Kantu Txapelketa**

Urteroko zitari hutsik egin gabe, Ipar Euskal Herriko kultur zentroek antolatutako Hilduen Kantu Txapelketa martxoan da jadanik. Ohi bezala, kantuz aritzea eta euskarazko testuak idaztea maite duten guztiei zuzentzen zaie deialdia. Honez gero, finalerdietarako eta finalerako lekuak eta datak finkatu dituzte: aurtengo Txapelketaren finala Gasteizen izango da ekainaren 15ean.

## EUSKARA EXPOLANGUES-EN

Azken hamaika urteetan bezala, euskarak stand-a izan du Pariseko Nazioarteko Azokan.

Aurten ere, EXPOLANGUES nazioarteko azoka egin da Parisen otsailaren 15etik 19ra. Hizkuntza eta kulturei eskainitako azoka da eta bere esparruan munduan burutzen diren artean garrantzitsuenak. La Villette-ko La Grande Halle-n bidu diren salmahai eta erakusmahaien artean, euskarak izan du bere txokoa. Eta aurreko ekitaldian bezala, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin aritu dira txoko hori prestatzen. Euskararen stand-era hurbildu den jendeak euskararekin zerikusia duen edozein gairi buruz galdetzeko eta informazioa lortzeko aukera izan du. Bertan, ohizko hiztegi, gramatika, foileto, etab. ez gain, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzak atera berria duen materiala ere izan

da ikusgai, besteak beste, gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez kaleratu diren *Euskara atzo eta gaur* CD-ROMa, eta *Euskararen Jarraipena* liburua eta *Nekazaritza Hiztegia*.

Beste bi ekimen ere antolatu dira aurtengo azokaren inguruan. Lehengoan, *Euskararen egoerari buruzko mahai-inguruan* Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako buru den Josune Ariztandok, Nafar Gobernuko Jose Manuel Legarrak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeko Txomin Heguyk hartu zuten parte. Bigarren ekitaldian, *Euskara atzo eta gaur* CD-ROMaren aurkezpena egin zen. Bi ekitaldi hauek Pariseko Euskal Etxean burutu dira.

## DEIALDIAK

### CALEIDOSCOPIO 2000

programaren deialdia

CALEIDOSCOPIO 2000 programaren helburua, dirulaguntza bitartekoa delarik, Europako lurraldeen artean kultura arloko eta arte zein kultura sorkuntzako lankidetzaren egitasmoak sustatzea da. Era horretara, Europako Batzordeak herri desberdinen kulturak ezagutu eta ezagutzera eman nahi ditu, kultura arloko trukeak indartzeko.

Burutuko diren proiektuek Europa mailakoak izan beharko dute eta ondorioz, gutxienez hiru estatutako ordezkariak bilduko dira horietan.

CALEIDOSCOPIO 2000 programaren deialdia martxoan izango dela aurrikusi da eta proiektuak aurkezteko epea maiatzean amaituko da.



1992. urtean izenpetu zen lankidetzarako ituna, eta, geroztik, mugaz bi aldeetako erakunde nahiz norbanakoen arteko elkarlana areagotzeko tresna garrantzitsu bilakatu da. Akitania-Euskadi-Nafarroa Elkarkidetzarako Fondoak baterako egitasmoak sustatzeko eta harremanak areagotzeko baliabiderik erabilienetakoa da. Gaur egun Europako Batasunaren Lurralde Politikaren eta Interreg izeneko programaren barruan sartzen da fondoa.

Aurtengo deialdia prest dago jadanik eta bertan partaide diren hiru administrazioek deialdiaren ardatzak eta oinarriak kaleratu dituzte. Euskal Autonomia Elkarteak dagokionez, apirilaren 15 arteko epea duzue, interesaturik egonez gero, zuen egitasmoak bertara aurkezteko.

Nork aurkez dezake bere burua deialdi honetara? Aurreko urtetako eskarmentua dutenek ongi dakiten legez, Akitaniako eskualdeko erakunde edo pertsona pribatu nahiz publikoekin mugaz bestaldeko

Eta zer aurkez daiteke lankidetzarako fondo honetan? Deialdiak aurrikusten dituen iharduerak asko eta era askotakoak dira. Laburbilduz, ondoko esparrutara egokitu beharko dira proposamenak: euskararen zabalkun-

## Akitania-Euskadi-Nafarroa: lankidetzaren bidea jorratzen

lankidetzako proiektuak sustatu gura dira deialdi honen bidez. Helburu nagusia hori izanik, egitasmo guzti-guztiek bi aldeetakoak izan beharko dute eta herrialde bakoitzeko lankide bat edo gehiago bildu beharko dute.

tza, hezkuntza, kultura, gizarte, ekonomia, finantza, ingurugiro, zientzia eta teknologiarako. Jasoko diren eskabideen artean dirulaguntzak banatzeko orduan, aurrez finkatutako lehentasunezko irizpideak erabiliko dira. Besteak beste, lehentasuna

emango zaie bi eskualdeetako partehartzaileen lankidetzaren kontuan hartuz, proiektuak mugaz gainditzeko duen gaitasunari, proiektuak duen garrantziari, bere izaera eta partaideak kontuan izanik, eta aurrez beste laguntza edo dirulaguntzarik ez izateri. Eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin daiteke izan proiektuak guztira duen kostuaren erdia baino gehiagokoa.

Proiektuak Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzaren Nagusian aurkeztu behar dira. Informazio gehiagorako deitu: (945) 18 81 44.



## Enkarni Genua

### Txontxongilo taldeari zorionak

25 urte. Hori da marka! Lehen ikuskizuna taularatu zutenetik, 25 urte iragan dira jadanik. Horieta guztietan Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek Txontxongilo taldearen ardura izan dute eta, ondorioz, beraiei zor zaizkie denbora-tarte horretan guztion gozamerako utzi dizkiguten istorioak. Batez beste, hirurehun pertsonaia inguru sortu dituzte urte hauetan eta guzti-guztiak ikusteko eta ezagutzeko

parada izan dute Euskal Herriko haurrek. Gaur egungo ikusleak taldearen lehen lanekin gozatu zutenen seme-alabak dira. Ez da harritzekoa, beraz, herri honetan dugun txontxongiloekiko zaletasunaren erantzuleak direla esatea. Izan ere, pertsonaia eta istoriak ezagutzera emanez, haurtzaroko oroitzapenen artean leku aparta lortu du Txontxongilok. Guztiagatik hortaz, zorionak!

## Juan Jose Agirre

### Urtetako lan handiari txalo

Juan Jose Agirre, beneditarra eta Lazkaoko Beneditarren Dokumentazio Zentruko burua. Makina bat urte eman ditu Agirrek Lazkaoko liburutegiaz arduratzen eta gure herriko ondare historikoari arreta eginez. Sabino Arana Fundazioak urtero eman ohi dituen sarietako bat jaso du

aurten Juan Jose Agirrek, kultura arloari dagokiona hain justu. Sariak banatzeko ekitaldia urtarrilaren 29an burutu zen Gasteizen eta bertan esan zenez, "Euskadiko bizipen askoren testigantza" jasotzen egindako lan eskergagatik eman zaio aurtengo saria Lazkaoko beneditarrari.



## IRITZIA

### Ordenagailuarekin ere euskaraz

Begi bistakoa da informatika, egunetik egunera, pisu eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela eguneroko lan-jardunean.

Horren jakitun Eusko Jaurlaritzak, hainbat erakunde publiko eta pribaturen lankidetzari esker, ahalizapen berezia egin du euskaraz tokirik izan dezan esparru honetan ere.

Ondorioz, euskaraz ditugu, denon eskuetan, Microsoft-Word 6.0 eta Microsoft-Windows 95. Eta, gure ustez, aurrerapauso handitzat jo dezakegu hori euskararen normalizazio eta modernizazioaren bidean. Izan ere, euskaraz bizi eta lan egin nahi dutenak, hemendik aurrera, euskaraz mintza daitezke ordenagailuarekin.

Orain, erabiltzea dagokigu denoi, aurrera egiterik izan dezagun.

Josune Ariztondo  
Hizkuntza Politikarako  
sailburuordea

**H**idraulikari buruz euskaraz egindako lehen liburua

kalean da jadanik eta ondoko argazkia da horren lekuko. Usurbilgo Lanbide Eskolak sustaturik, Alemaniako Festo enpresaren liburua Elhuyar Kultur Elkartek berriki euskaratu du. Liburuaren bertsio guztiek berebiziko arrakasta izan dute eta jadanik 70 hizkuntzetara dago itzulita. Iñaki Mujika Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariak adierazi zuenez, "lankidetzako bidean sakondu beharra dago gaur egun ditugun hutsuneak bete ahal izateko".

## Lehen begiratuan



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....